

PAU FIGUERES ORTIZ

Donde las patatas, la coca-cola y la fanta

2019ko irailak 3 – urriak 20

rekalde

Alameda Recalde, 30 | 48009 Bilbao
Tel. +34 94 406 85 32
www.salarekalde.bizkaia.net

Ordutegia

Asteartetik larunbatera: 10 - 14 eta 17 - 20:30
Igande eta jai egunetan: 10 - 14
Astelehenetan itxita

Horario

Martes a sábado: 10 - 14 y 17 - 20:30 h
Domingos y festivos: 10 - 14 h
Lunes cerrado

Opening hours

Tuesday to Saturday: 10 - 14 and 17 - 20:30 h
Sundays and holidays: 10 - 14 h
Monday closed

sarrera doan | entrada libre | admission free



PAU FIGUERES ORTIZ

Donde las patatas, la coca-cola y la fanta

2019ko irailak 3 – urriak 20

Antologiak asaldura-testuez beteta daude; museoak matxinada-deiez; izan ere, historiak iraupenaren zukan oso ondo kontserbatzen dituenek, ikustez eta entzutez ahaztuko gara. Eta, hain zuzen ere, hor kontsumo-gizarteak sarritan disolbatzaile osasuntsu modura jarduten du. Gure garaian arteak jada plastikozko katedralak besterik ez ditu egiten. Dagoeneko ez dago estetikarik, kontsumigarriaren diktadurapean, obra maisuak ezagutu baino lehen desagertzen ez denik.

*Belaunaldi gazteek erabiltzeko bizitzen jakiteari buruzko tratatua
Raoul Vaneigem, 1967*

Duela denbora asko kulturaren iraultza-gaitasunei buruzko inozentzia galdu genuen. Aisialdiaren merkantilizazioak eta kontsumo-gizarteak edozein egoitza-gune toki antzu bihurtu zuten, ez-eraginkorra hausturaren gutxienerako haizea emateko. Gizartearen joan-etorrian gure zeregina etengabe barrukoa kontatzera kondenatuta dago, irudiaren kontzeptuaren definizio berriak eraikitzen amaitu duen edukiaren jausian.

Bizimoduak doktrina bihurtu dira eta axolagabetasunaren alderik ilunenean ostatatzen dira. Gune horietan liskarrak gauzatzeko ez du tokirik aurkitzen. Orduan, egunerokotasuna menderatzea da galdutako gotorlekurik garrantzitsuena, horretan jarri baikenituen egunero gure gorputzak, gure kontraesanak, beldurrak eta nahiak.

Arte garaikidea bestelako bizimoduak irudikatu eta proposatzeko gai da. Kontakizuna formala denaren poetika erabiliz proposatzen da eta interpelatzen duen begiradaren bitartez osatzen da. Komunikazio-eskema ez da ixten alde hartzailerik gabe eta horrek, aldi berean, narrazioa bere bizi-esperientzian oinarrituta osatzen du. Formatu bezala, azalpen-tresna aginte-erlazioan oinarritzen dela pentsa dezakegun arren, jendeak elementu bakoitza aktibatzen toki protagonista aldarrikatzen du. Autonomiaren arrasto horiek, agian, bizirik mantenduko dute sormen artistikoa aldaketa-tresnatzat jo daitekeela sentitzea edo nahi hori sortzea. Diskurtso handien energiak agortuta, edozein disidentzia gertatzen da gure eguneroko zeregina egituratzen duten keinu txikietan eta bertatik lapurtu zizkiguten fronteak identifikatzean.

Donde las patatas, la coca-cola y la fanta, hain zuzen, pitzadura horietan murgiltzen da. Izan ere, arteak malguki modura, ohartarazpen gisa, funtzionatzen du. Turismo masiboa gure garaiko gaitz endemiko bihurtu da. Toki demokratiko modura gune publikoaren promesa, duela urte asko sinesteari utzi geniona, orain merkantilizazio-maila handian sartu da eta, itxuraz, oraindik ez du sabairik ukitu. Hiriekin harreman horretan, batzuetan biktimak gara, baina errudunak ere bai eta bipolaritatera garamatza. Nolanahi ere, irabazi ekonomikoaren aitzakiapean, nortasunak eta horietan bizitzeko aukera desagertzen dira. Bizipenaren mintzaira aldatzen da eta testuinguru nahiz denbora zehatzaren kide izatera eramaten gaituen edozein toki erkide asaldatzen da.

Pau Figueresen lanak barru-barrutik sumintzen du. Ikur ezagunak aipatzen ditu eta irakurketa azkarreko barne konexioak eragiten dituzte, baina, aldi berean, urratu eta erredua sentiarazten dute. Masa-kulturen estetikari lotuta, pieza bakoitza bere atzetik arrastatzen duenaz jakitun da, jokoan dauden esanahi guztiak ezagutzen ditu eta aipamen guztiek pisatzetik urrun, laguntzen gaituzte eta adimena erabiliz irakurtzen hasteko eremuan kokatu ere bai. Hain zuzen, taularatze modu horrek hutsik gabeko estrategia gisa funtzionatzen du arreta jartzeko. Dena den, artelanen izenburuekin osatuko da, mezuak osotasunari beste narrazio-geruza bat eransten baitio. Hala eta guztiz ere, ez gaitezen fio; hurrengo ikusian maniobra burutsuak beste alde batetik itzultzeko tokian ipintzen du. Erraza zirudiena garratz bihurtzen da eta artelan bakoitza gainerakoekin erlazionatzen da diskurtso sendo eta zuzena sortzeko.

Alde erkidea dago eta kontsumo-nahiarekin nahiz sakralizazioarekin zerikusia du, artea horretarako gai baita. Desagertutakoa, jada ez dagoena, azaltzea, pigmentu zuriko patinak karteletik ezabatzen duen izozkia, natura hila izaten amaitzen duena, inprimaki digitalaren eta pintzel-keinuaren arteko joko formaletik abiatuta. Freskatzeko aukerarik ez dagoenez, moldea bere forman (kaxa) ikustera behartzen gaitu, oso oreka hauskorrean, sardexkak eguneko menuaren arbela eusten duenean bezala. Joko bakoitzak errealitate bat tirokatzen du eta ezaguna zaigu, baita identifikatzeko gai gara ere. Gure bistaren aurrean jarriko du eta zuzenean iritzi bat egituratu beharko dugu.

Agian, jada matxinatuzera deitzeko garaia ez da. Agian, artea inoiz ez zen tripak nahasteko gai izan eta ez zen hori bere asmoa ere ez. Hala ere, agian, azken finean, artearen tokia muturretarantz, gure esperientzia muturreko bihurtzerantz bultzatzea zen. Baliteke kokotsa gora jarrita aurrez aurre ipini nahi izatea eta ozenki honakoa galdetzea: zuk zer egingo duzu?

Iker Fidalgo

Pau Figueres Ortiz (Donostia, 1976) Enpresen Administrazio eta Kudeaketan lizentziatu zen Coventryko Unibertsitatean (Ingalaterra) 1998. urtean, eta 2011. urtean Arte Ederretan Euskal Herriko Unibertsitatean. Gaur egun doktoretza-tesia amaitzen ari da: *Re-ad. El icono comercial en una acción artística (in)voluntaria o arte bobo*. Tesi horretan kontsumoaren kontrako kritikaren estetika eta problematika aztertzen ditu, praktikatik abiatuta, bai eta merkataritzako ikonografiaz baliatuz imaginario berriak sortzeko prozesua ere bai. Hainbat erakusketa egin ditu, bai nazioan, bai nazioartean; azkenak Bregenz (Austria) Lisi Hämmerle galerian, Valentziako La Posta fundazioan eta Alacanteko La Peluquería proiektu independentean agertu dira. Hainbat beka eta sari jaso ditu; hona ezagunenak: Bilbaoartekoa, sorkuntzarako eta estudio edukitzeko; egoitza-beka Bregenzeko (Austria) Kunsthau-en; Gipuzkoako Foru Aldundiaren Labore beka; Eusko Jaurlaritzaren ikerkuntza-beka; proiektu artistiko onenaren saria Gipuzkoako Artista Berrien XLIV. Lehiaketan.